

U.Z.E.I.ren «ERLIJIOA/1 - HIZTEGIA» ri KRITIKA

Sarrera

KARMEL aldizkariko 1987-4. zenbakian (86-90. orr.) «Erljioa - Hiztegia» tituluaz tomo biren ezaguera eman edo eta propaganda-gisa zabaldu genuen. Baina gaur, «Hiztegia» horri buruz kritika zorrotzago bat nahi dut egin.

Ez dakit zenbat bider entzun ote dudan Euskal-kultura deitzen dugun mundu txiki honetan nahiz literatur, histori edo zientzi mailan izan, ez dela egiazko kritikarik ezagutzen eta are gutxiago autokritikarik. Hainbat arrazo ez-berdin ematen dira: orain dela egun batzu, lagun batekin solasean aritu ondoren, txantzetan baina halako ironi kutsu batez errazoiatariko bat, irakurketarik eza izan daitekeela esan zidan; honen ondorioz, idazten dena ulertzeraz edo antzematera heltzen ez delarik.

Batzuetan, ondoko honengatik izango ote den diot nere buruari: Euskal herria eta bere mundu kulturala hain txikia izanik, denok ezagutzen dugu elkar eta gure arteko harremanak gorderik, ez gara kritika zorrotz eta seriorik egitera ausartzen; beharbada inor ez nahigabetzarren? edo kritikaren egilea marginatua izan ez dadin? Izan ere beldurra ere arrazoiatariko bat izan daiteke: zientziaren eta kulturaren onerako kritika egiten duena, gizarte maila batzuetan baztertua izaten da. Guzti hau arrazoiatariko bat izan daiteke.

Baina kulturak, hutsegiteak baztertuz eta ongi asmatuak

onartuz egiten du aurrera, kultura eta zientziaren hainbat alder-
diren aurrerakuntza hobetuz edo lagunduz..

«Erljioa/1 (eta 2) Hiztegia»-ren agerpena ezin da, bere ei-
nean euskal kultura eta gizarteari emana dagoen KARMEI be-
zalako aldizkari batetan, zer esanik gabe pasatu.

Honela bada, kritika honek, egindako lana (=Hiztegia) au-
rreratzeko balio dezan nahi du eta «Erljioa - Hiztegia»-ren ba-
lloa bere mugetan arri; hemen beraz, «Hiztegia 1»-ez ari naiz eta
ez «Hiztegia 2»-az, ez bait naiz lexiko ideomatikoan eta bili
den euskarari sartzen.

1. Puntu positiboak

«Erljioa/1 - Hiztegia»: Donostia 1987. 523 orr. (U.Z.E.I., E.L.
K.A.R.). Hiztegi hau askoren artean egina da eta Paulo Agirre-
baltzategik zuzendua.

«Hiztegia» honen azpekturik balioagarrena euskeraz argira-
tua izatea da. Jasan behar diren zailtasunik ikusiz, lehenengoa iza-
teak bere meritoa du eta horregatik izan behar da hutsak haus-
nartzerakoan ere halako ulerkotasun bat. Erljioen ordenu eta
aurkezpena euskeraz egin dutenen artean lehena izatea erraza ez
izanik, egiazki atseginez onartzen da honelako hiztegi baten
agertzea.

Honela bada, «Erljioa-Hiztegia»-ren aurrean gaude, bertan
bere artikulua labur baina ugarietan sinestunen erljio edo bizitza
erljio-soari buruzko informazioa ematen bait zaigu.

Hiztegiaren beste alderdiren batetan trataturiko gaiet
buruz, hainbat artikulutan agertzen diren aipamen edo erreferen-
tzia ugariak, tematika determinatu edo mugatuaren konexioa
errazten du.

Honelako hiztegi baten falta somatzen zen eta euskaldun
hormituriko talde bati esker emen da pausu positibo hau. Zorion-
ak!

2. Puntu kritikagarriak

Behar den bezelako kritika zorrotz eta serio bat egiteko, hiztegiaren egileek proposaturiko asmo, helburu eta erizpideak kontutan hartu behar dira.

a) *Proposaturiko erizpideak eta hauen jarraimena*

Erizpide eta asmo hauek «Sarrera»n agertzen dira; bertan, «erlijioa-Hiztegia» hau Erlijioaren Hiztegia, Erlijioen Hiztegia eta Kristautasunaren Hiztegia dela esaten zaigu. Guzti hau, hiztegi txiki batetan sartzea gehiegizkoa izango litzateke baina zuzendariak berak jartzen ditu mugak: «Gaurko erlijio nagusienak bereziki eta horien barruko alderdi ezberdinak hartu ditu kontutan» (14. orr.).

aa) Mugaketa honek arazo biren aurrean jartzen gaitu:

-«Erlijioa-Hiztegia» batetan gaur egungo erlijioak bakarrik kontutan izatea ez al da gehiegi mugatzea? Erlijio hiztegiatako zatirik ia beharrezko eta nagusienetariko bat erlijio zaharrei buruz izan ohi da beti, beren Jainko, ideia, influentzia, etab... erlijio prehistorikoak, zeltak, germanikoak, grekoak, erromatarak, etruskoak, eslaboak, mesopotamiarrak, etab.

«Erlijioa-Hiztegia»-ren zuzendaritzak, berak nahi duen denboretan kokatzeko eskubide metodologiko guztiak ditu, baina honela ikusiz, hiztegian agertzen den mamari ez dagokio titulu hori: horrela bada, «Gaurko Erlijio Hiztegia» edo antzerako zer-bait deitu behar zuten gaur egunean bizirik dauden erlijioei begiratuz.

-«Erlijio nagusienei» buruz dihardu,... eta erizpide honek gaur egungo erlijioak ere mugatu egiten ditu. Arazo honetan, subjektibismo zail batek hartzen du parte zer den garrantzitsua eta zer ez esaterakoan; zeren eta adibidez «Mandaismoa» (Iran eta Irak-en jarraitzaile gutxi gutxi besterik ez duen erlijioa)-ri buruzko artikulua bat badago, zergatik ez dago Tibet-eko Bon, Txina eta Japon-go Txamanismoa edo Australiako erlijioei buruzko artikulurik?

bb) Beste mugaketa bat

«Sarrera»n, hiztegi honetan erlijioen fundatzaileei buruz hitzegiten duen artikuluren bat aurkeztu beharrean, erlijio bakoitzaren deskribapena egiterakoan aipatzen dela fundatzailea esaten da. Erizpide hau «Erljioen Hiztegia» izan nahi duen «Erljioa-Hiztegia» batetan agertzea arraro xamarra gertatzen da.

cc) Beste hutsune edo akats batzu

Hiztegi honetan, artikulua askoren falta somatzen dut eta darabilen estilo eta metodoari begiratuz ez litzatekeela falta hau hartu behar uste ere; adibide batzuk erantsiko ditut bakarrik:

- Hiztegiako artikulua askotan, batzuetan gehiegizkoa ere gertatzen den etnografi-kutsua nabari da eta bestalde ez da etnografia erlijiosoari buruzko artikulua bat ere agertzen.

- Ez dakit zegatik ez den «Mazoneria»ri buruzko artikulurik ageri.

- Batzuetan ez dakit euskerazko «Erljioa - Hiztegia»-k euskal kultura kontutan hartu nahi duen hala ez Adibidez, Olentzero eta antzekoai buruz badihardu, baina «Jansenismoa»ren artikuluan esate baterako ez da hain unibertsala gertatzen eta Jansenismoaren sorreraz baterakoa den Jean Duvergier de Hauranne et d'Echeverry («Saint Cyran») euskalduna aipatu ere ez du egiten. Motibo bigatik aipatu behar zuen nere ustez: Jansenismoari loturiko gizon unibertsala eta euskalduna izate arren.

-«Sarrera»ko lehen orrialde bietan erabiliriko edukinaren forma, matizazio eta estiloa ez zaizkidala ez onak ez egokiak iruditu ere esan beharra dut.

- Batzuetan, zeremonia eta sinezkizunen arteko konparaketa bat baino gehiago «nahaste-borraste» bat dirudi, hau da, desorekatu agertzen dira kontzeptuak. Esate baterako, erlijio batetan garrantzi handia duen zerbait, inolako garrantzirik ez duen beste erlijio batekoarekin konparatu ezker, ez da zeharo garbia gertatzen..

- Honelako beste ainbat xehetasunez ari gaitzke luzaro

baina ez da beharrezkoa zeren eta ez bait dira hain garrantzitsuak ere.

b) Artikuluen kalitatea («Kristautasunaren Hiztegia»)

Hiztegiak artikulua batzuetan garrantzi handia eman dionen Kristautasunaren gaiari (bereziki artikulua batzuetan) nik ere geldiunetxo bat egingo dut hemen nere pentsamendu kritikoa azaltzeko.

Artikulu batzuen edukinari buruz gogorragoa izan behar dut. Egia da, klase onetako hiztegieta gaiak sakonki tratatu beharrean, gai bakoitzaren lehen begirune edo informazio ezentziala ematen dela. Gainera, hain zabal eta ugaria den tematika bat 523 orrialdetan azaldu ezker, ezin du gauza gehiegirik esateko posibilitaterik eskaini gai edo artikulua bakoitzak. Hau jakitzat ematen dut; eta hau gutxi izanik, nere kritika honetan zirkunstantzia honetan moldatzen naiz.

Baina 523 orrialdeko kantitate bereberean, artikuluen edukin eta informazioa arras hobeagoa izan zitekeen. Ez dakit nola egin ahal izan den horrelako hiztegi txiri bat beste nazio eta hizkuntzatan antzeko hiztegiak ezaguturik. Euskeraz argitaratzen den lehena izan arren, gai alderik ez da lan aitzindari bat; horrela bada, hiztegi honen dimentsioak eskaintzen duten posibilitateen barnean kalitate hobeagoa eska zitekeen.

Hain balio gutziko artikulua asko izatean, hiztegiak asko galtzen du. Egiazki, badaude baita erlatiboki ongi aurkezturiko artikulua ere. Baina tonika ezezkoa da.

aa) Joera baterakoa

Hiztegiaren zati handi batek «Sekularizaiozko teologia» delakoaz kutsatua dagoela dirudi. Hiztegi baten kasuan, gauza arraroa.

Aspektu horrei gainbalioa ematea eztabaidagarria iruditzen zait. Hala eta guztiz ere ez da beste joerarik nabari, adibidez, teologiak. Ez dirudi hiztegi bati dagokion irekitasunez idatzia da-

goanik, mentalitate hertsi batez baizik.

bb) Nahierazkotasuna

Batzuetan, artikuluen hautaketa nahiko nahierarakoa edo pisu gabea gertatzen da: «Jainkoaren heriotzaren Teologia»ri buruzko artikulua bat ageri da (gaur egunean pasatua dagoela uste den unibertsitate ingurugiron zabaltzen zen korrontea), eta hala eta guztiz ere ez dago «Jesusen heriotza», «Heriotzaren teologia» edo «heriotz zigorra»ri buruzko artikulurik.

«Teologia dogmatikoa» edo «Teologia sistematikoa»ri buruz ere badihardu, betiko antzera P. Tillich izandaten da eta S. Tomas ez da aipatu ere egiten. «Teologia dogmatikoa»-z ari den artikulua batetan, hau arraroa edo behintzat bitxia iruditzen zait.

Hain garrantzitsua den «Teologia biblikoa»-ri asko leku gutxiago ematen zio «Teologia liberala» edo «Teologia inperiala»ri baino, etab...

Elizei buruzko hainbat artikuluren artean «Eliza herritarra» sartzen du eta harrigarria izateaz gainera ez da bat ere egokia, zeren eta Eliza Katolikoaren mugindu bat [eliza desberdin lez?] artikulua batetan agertzea harrigarria gertatzen da. Gainera, mugimendu horren antzeko beste hainbat hamarreko jar genitzake eta zergatik ez dira jartzen? Mugimendu batzuei buruzko informazioa ematen da bakarrik hala ez?

cc) Artikulu garrantzitsu batzuk

- 12 artikulua bereziki edo besteak baino sakonkiago azalduak daude eta hauetariko bat den «Jesuskristo»ri buruzkoa nahiko nuke komentatu hain zuzen ere.

- Hainbeste artikulua ahul eta axalen artean agertzen da «Jesuskristo» (284-290. orr.), aldieta tintate hiper-kritikatzailez beterik eta beste artikuluen taldeaz bat ez datorrelarik.

7 apartatutan zatitzen da. 7 orrialdetako artikulua batetan ahal den informazio osoena eta erraza emateko, desoreka handi bat dago; bi orrialde eskaintzea ebanjelioak ulertzeko modu

orokorrari (guzti hau beste artikulua batetan egongo zen ongi baina ez Jesusen bizitzari buruz hain motz dirauen artikulua honetan) eta «Jesusi buruzko ikerkuntza»ri.

IV. apartatua «Jesusen nortasuna»ri buruz hitzegiten digu orrialde bat baino gehiagotan eta bertan Jesus ez zela apaiza, ez saduzearra, ez zelotea, ez monakoa, ez errabinoa izan esaten digu. Jesusen pertsonalitateari buruz, zer izan ez zen esatera mugatzen da soilik..., eta «Kristoren misterioa»ri buruzko hurrengo-ko atalean aipatzen du zerbait.

Honelako hitzegi batetan, 7 orrialdetan Jesusi buruzko informazio puntual eta orokor gehiago eman behar zatekeen, eskolen diskisiziorik gabe (errespetagarri eta hermeneutitoki garrantzitsuak).

Bitxia da: datu historiko eta hainbeste orientabide interpretazaileraren artean ez da esaten Jesus emakume baten seme izan zenik, Mariaren izena ama bezala, noski, ez da agertu ere egiten...

- Hemendik «Maria Ama Birjiña» artikulura pasatuko naiz (hiru zutabe eta erdi luzeran); ia zutabe oso bat «Maria Itun berrian» azpigitulari dedikatzen dio eta bertan diona oso txiroa da; lehen kantitate berdinetan idazleak zerbait sakonago, errealago eta Itun Berrian oinarritutako gauza garrantzitsuagorik esateko ez ote duen galdetzen du batek. Eta «Mariologiaren etorkizuna» azpigitulupean esaten duena hain da axala, arintasun eta kontraesan bezala eta jakintza biblikoaren falta hain da nabaria, bat harrituta uzten duela.

-«Kristautasuna» artikuluan, kristautasunaren historiako 60 gertakizun garrantzitsuenetarikoak agertzen dira; alde batetik, unibertsaltoki hain garrantzitsuak ez diren gertakizun batzuk aipatzen ditu eta beste aldetik, trazezientzia handiagoa azaltzen dutenak ez ditu aipatzen. Guzti hau eztabaidagarria litzateke baina datekeena da idazleak gai garrantzitsuen hauek jarri nahi ez izatea ere... VI. kapitulu hau «Kristautasunaren hogei mendeak», 6 azpigitulu hauetan murrizten du:

1. Sekta hala Eleiza unibertsaltoki?
2. Salbamena Jainkoagan-

dik. 3. Islamismoaren bultzada. 4. Eliza handiaren zisma. 5. Kristoren elizaren erreforma. 6. Sekularismoa eta kristautasuna.

6 azpítitulu hauek 20 mendeetan zeharko kristau historia guztia nolako oinarrien gainean azaldu den ikusteko datu bezala jarri ditut.

- Horrela, halako arintasun eta zentzu historiko gutxiz idatzitako «Aita Santua», «Katolizismoa», «Euskaldun-fededun», etab. bezalako beste hainbat artikulu komentatzen jarraituko nuke...

3. Nere eritziaren laburpena

Laburki esateko, alde batetik euskaraz idatzi den «Erljioa-Hiztegia» lehenengokoa izatearren nere atsegin eta eskerra ematea nahi nuke, baina beste aldetik, beste hizkuntzetan hainbat hiztegi izanik erraz hobetzeko artikuluak izan ete hain txiro azaltzeaz nere miña azaltzen dut.

Honez gainera, tituluak, ematen duena baino gehiago eskeintzen du. Uste dut, Euskal Herriarentzat askotaz hobeagoa izango zela orain kristautasun hutsari buruzko hiztegia bakarrik atera balitz, gerora erlijio guztiei buruzko beste bat ateratzeko asmotan, aintzinakoak baztertu gabe noski.

Julen Urkiza